

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2005 Martxoa • 31. zenbakia





AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	8
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	19
GU ERE KAZETARI	23
NAHASTE BORRASTE.....	27



14. korrika *ni ere bai!* *dek*

Euskal Herria euskalduntzen ORREAGA-BILBO 05



DENOK EUSKARAREN ALDE

Martxoaren 10ean Orreagan hasi eta martxoaren 20an Bilbon bukatuko da. KORRIKA 14, Oiartzundik martxoaren 12an, larunbatean, igaro zen eta jende askok parte hartu zuen.

KORRIKA Euskal Herria euskalduntzen eta zu?

Haurtzaro ikastolan korrika txikia ospatu genuen martxoaren 11n. A ze gustura jardun genuen korrika eta korrika!

Oiartzuarra izan behar!

Batek baino gehiagok esango zuen, noski, hau jakin zuenean: aurtengo kilometroetako autoa Oiartzuna etorri da.

Bai ba. Ez zenekien ala? JON ORKAIZAGIRRE gure ikaslea izan da irabazlea. A ze harro agertzen zaigun BERE autoa jasotzen argazki eder honetan.

ZORIONAK JON!





2. Hiruhilabeteko irteerak

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
H.H. ZIKLOA IRTEERAK			
1.	Martxoak 19	Bretxako azokara	Elikagaiak bertatik ikustea
2.	Martxoak 8	Eskulan erakusketa	Herriko jardueretan parte hartzea
1. 2. 3.	Martxoak 11	Korrika txikia	Parte hartzea bultzatzea
L.H 1. ZIKLOA IRTEERAK			
1. 2.	Otsailak 15	Kiroldegira	Euskara erabiltzea bultzatzea
1.	Otsailak 21	Donostiara-zinemara	Zinema euskaraz
2.	Otsailak 21	Zinemara	Zinema euskaraz entzun eta ikustera
2.	Martxoak 1	Okindegia	Ogiaren ekoizpen ezagutzea
L.H 2. ZIKLOA IRTEERAK			
3.	Urtarrilak 25	Martin marrazkilariarekin	Pertsonaia ospetsuak ikasgelan saioa
3.	Otsailak 15	Zinemara	Euskara zinema aretoetara
3.	Otsailak 23	DBH 3. mailakoen emanaldia	Besteen lanak entzun eta baloratu
3.	Martxoak 2	LH 4. mailakoen ingelesezko emanaldia	Besteen lanak entzun eta baloratu
3.	Otsailaren 14tik Martxoaren 17ra	Elorsoro kiroldegiko igerilekura	Uretan trebatzen joatea
4.	Otsailak 16	Antton Kazabon idazlearekin saioa	Pertsonaia ospetsuak ikasgelan
4.	Otsailak 24	DBH 3. mailakoen emanaldia	Besteen lanak entzun eta baloratu
LH 3. ZIKLOA IRTEERAK			
5. 6.	Martxoak 7	Donostiara	Zinema euskaraz
6.	Martxoak 7	Donostiara	Plano baten laguntzaz orientatzea
5.	Martxoak 15	Gernika – Guggenheim	Ingurunea: Gaia "Euskal Herria"
DBH ZIKLOA IRTEERAK			
1.	Otsailak 9	Uraren ibilbidea	Natur: ura gure etxera nondik barrena
3.	Urtarrilak 18	Miramонера	Parke teknologikoa. aula digitala eta zientzia museoa ezagutzea.



2006. urtean haurtzaro ikas-
tolak kilometrotako festa
antolatuko du. Horretarako
badugu koordinatzaile oro-
korra: **Ainara Artola Ariz-
tizabal.**

Hilabete honetan 25 urte
beteko dituen Oiartzuar hau
gure ikastolako ikasle ohia
eta irakasle dugu. Artearen historian lizenziatua da
eta Guggenheim museoan egin zituen ikasketen
praktikak. Azken bi urte hauetan gure ikastolan
ordezkapenak betetzen aritu da.

Zorionak eta ekin lanari!!!

Aurten DBH-4.maila-
ko bidegintzako ikas-
leen eta irakaslearen
arte Inauterietako
egunean grabatutako
irudiekin DVD bat
sortu dugu. DVD
honetan, jaialdia oso-
rik ikusi ez ezik, tek-
nologia honek eskaintzen dituen aukerak aprobe-
txatuz, bideo motzen bidez, zikloka ikusteko aukera
sortu dugu. Era honetan, bideoa osorik ikusi ordez,
gure ikasle edota seme-alaben partehartzea ere
ikus daiteke. Baita Gurasoen Taldeak egindakoa ere,
noski.



Erein eta gerto

Milaka zorion idazle onak, irudimentsuak, hitz ederrekoak eta gai interesgarriak plazaratzen dituztenak ditu-
gulako gure ikasleen artean. Gure aldetik aipatu nahi ditugu erein ondorengo uzta ederra ditugulako.

Zorionak beraz Uxue Telletxea Loperena, Itsaso Uitzu Abarquero, Ibai Kortabitarte Jauregi, Irati Huizi Lizaso, Aintzane Toledo Lardi, Laida Elorza Otaegi, Eneko Huizi Lizaso, Inaxio Lekuona, Olaia Azpiroz Irigorri, Aintzane Arrastua Lekuona, Haizea Arbelaiz Kortabarria, Olatz Mitxelena Larreta, Alaia Martin Etxebeste, Olaia Susperregi Irigorri, Garoa Arbelaiz Urrutia, Lur Mitxelena Martiarena, June Gaintza Thalamas, Ane Badiola Ostolaiz, Izar Azpiroz Irigorri eta Beñat Badiola Ostolaiz.



Uxue Telletxea



Itsaso Uitzu



Ibai Kortabitarte



Irati Huizi



Aintzane Toledo



Laida Elorza



Eneko Huizi



Inaxio Lekuona



Olaia Azpiroz



Aintzane Arrastua



Haizea Arbelaiz



Olatz Mitxelena



Alaia Martin



Olaia Susperregi



Garoa Arbelaiz



Lur Mitxelena



June Gainza



Ane Badiola



Izar Azpiroz



Beñat Badiola




Lanak 04/05 ikasturtea

Aurtengo ikasturtea lanez betea izan dugu eta ez bakarrik gela barruan egiten ditugunak EZ HORIXE! Gure ikastola berritzeko eta behar bezala eguneratzeko jasan ditugu lan horiek.

Batzuk ikusi ahal izan ditugu eta beste batzuk laster ikusi ahal izango ditugu.

GIMNASIOA-ALDAGELAK

Bukatua dugu gure gimnasio berria eta, hara nola geratu zaigun!



ELEKTRIZITATE HARITERIA ALDATU

Gure teknologia berriek behar duten "janaria" eman ahal izateko erabili dugu.



JANTOKIA

Gero eta haur gehiago ditugu gure janari dastatu nahian. Horretarako lekua behar dugu.

IGOGAILUA

Gure hurrek trabarik topa ez dezaten prestatzen ari gara.

4 URTEKOENTZAKO KOMUNAK

Helduen behar berak dituzte gure txikiek, baina txikiak direnez, bere neurriko "eserlekuak" izan behar dituzte.

EGUZKI PLAKAK. IKASTOLAN

Energia garbia erabiltzen irakatsi nahi badugu, guk ere erabili beharko dugu.



Ikastolan telefono antolaketa berria dugu

Aurtengo ikasturtean ikastolako telefono zentral berria martxan jarri dugu. Era honetan, telefono deiak antolatzeak aukera berria dugu eta ikastolako partaideekin zuzenean hitz egiteko aukera.

Ikastolako telefonoetara deitzerakoan, honako mezua entzungo duzue:

“Haurtzaro Ikastolara deitu duzu. Jakinez gero, sakatu luzapena”

Beraz bi aukera ditugu:



1.- LUZAPENA ERABILTZEA:

Hauek dira erabili ditzakegunak:

ZENBAKIAK	LUZAPENA	IZENA
111	ZUZENDARIA	LUPE MENDIGUTXIA
112	ADMINISTRARIA	AGUSTIN VITAL
113	IDAZKARI BULEGOA	ARANTZA URBIETA
114	DBHko IKASKETABURUA	KRISTINA BOAN
115	HHko IKASKETABURUA	ANA GELBENTZU
116	2 URTEKO GELAK	IRAKASLEAK
117	PSIKOLOGOA	MIREN GARBIZU
121	HAUR ESKOLAKo IKASKETABURUA	IZASKUN MADARIAGA

Aukeratutako luzapenean hitz egin ahal izango dugu, edota mezua utzi.

Beste irakasle edota langileri deitu nahi izanez gero, idazkaritzara zuzenean deitu beharko dugu.

2.- ZUZENEAN IDAZKARITZAREKIN HITZ EGITEKO:


Hasierako mezua entzun ondoren, beste inolako teklarik sakatu gabe, idazkaritzarekin hitz egingo dugu.


Neurri hauek ohitura bihurtzen ditugunean, gure arteko komunikazioa eta harremana hobetuko da.

Aurreko Txinparten teknologia berriei aritu ginen. Orain ere ez gara, bada, atzean geratuko: Haurtzaro ikastola web orria antolatzen ari da. Oraindik ez dago guztiz osatua, baina DENON laguntzarekin lortuko dugu.


Hau da helbidea:

www.haurtzaroikastola.net.





4 URTEKO NESKA-MUTILAK
BETI BEZALA LAN ETA LAN
GABILTZA, ORAINGO
HONETAN OIHANEKO
ANIMALIEI BURUZKO
INFORMAZIOA DABILKIGU
ESKU ARTEAN. ANIMALI
IZENAK, NON BIZI DIREN,
ZER JATEN DUTEN...



IPUIN BERRIA ERE OSO GUSTUKOA DUGU, "LEHOIA ETA KILKERRA"






IKASI ONDOREN
ZIRKU BAT
EGINGO DUGU
ETA
3 URTEKOAK
GONBIDATUKO
DITUGU.



BAINA EZ PENTSA BETI LAN
ETA LAN IBILIKO GARENIK,
OTSAILAREN 21EAN
ARANTXAREN
URTEBETETZEA OSPATZEKO
TARTEA ERE IZAN GENUEN,
URTE ASKOAN, ARANTXA !



Lehenengo mailako ikasleek, gorputza eta elikadura gaiari bukaera emateko, merienda orekatu eta goxogoxo bat denon artean prestatu eta dastatu genuen



Gorputzaz eta elikaduraz asko ikasi ondoren, antzinako Greziarantz abiatu gara Jaione Ugaldebereren eskutik. Ea bidaia interesgarri hau gustatzen zaigun!!

Antton Kazabonekin hitzordua

Otsailaren 16an, Antton gure gelara etorri zitzaigun "Momolo"z Hitz egitera. Guk zenbait galdera egin genizkion eta berak den-denak erantzun zituen.

Gero, Gabonetan egindako ipuin bat kontatu zigun, "Petra" astoa eta "Gorria" zaldiarena. Askok gustatu zitzaigun.

Poesiak nola egiten diren ere irakatsi zigun. Azkenean, bat batean, lehiaketa txiki bat burutu genuen gure izen-abizenak erabiliz.

Beretzat Aingeru izan zen irabazlea eta Anttonek idatzitako liburu bat aukeratu ahal izan zuen. Honela zioen Aingeruren esaldiak:

"ARRUTI

URRUTI"

NIRI

JOAN

ESAN

EZ

GABE

Ahaztu gabe Antton! Jakin ezazu "Amona martxosa" ipuinaren zain gaudela.

Laugarren mailakoak

Bigarren mailakoak ere Antton Kazabonen bisita izan dugu hiruhilabete honetan eta horretarako, bere liburu batzuk irakurri ondoren, galdera mordoa prestatu genuen.

Saioari hasiera eman zion galderei erantzunez eta saioa aurrera joan hala, asmakizunak, abestiak, olerkiak eta ipuinak kontatu zizkigun. Guztion ahoak momentu askotan, zabal-zabalik utzi zituen.

Agur modura bere azken liburua aurkeztu eta joko bat proposatu zigun liburua etxera eraman ahal izateko. Jokoa zen: nork bere izenarekin errima egin eta egokienak eramango zuen liburua etxera.





Aurten elur asko eta asko ikusi dugu eta ez bakarrik inguruko edo urrutiko mendietan. Klean ere elurra izan dugu. Helduoi elurrak hotza, erosotasun falta, kezka, haserrea sortzen digu, baina gure haurrei...

Irakurri zer esan duten hitza aipatu orduko:

ELURRA

GOXOA

URA

HOTZA

KATARROA

TRIPAKO MINA

ESKULARRUAK

GAXOTASUNA

JOLASTU

MINA

BOLA

IZOTZA

ITSUTU

HAUTSI

PANPINA

ZIKINDU

IRRISTATU

ISTRIPUA

BUSTI

KATEAK

KONTUZ!

ERORI

HONDATU

BOTAK ARKIDURA

•EPTF
TXA KU RRA



•EPTF
TXA KU RRA

•XURA
TXA KU RRA

XNUA

•BUENDA

•ESKUL

BTX
BOTAK

MIA
MEN DI A

•OTA
HOTZA

•OADSP
JO LASTU

UIA
TXURI A

•NOIA
BE RO KI A
UIA
TXURI A

•POXOZAKURTPA
RER ELUR PAN PI NA

•URTE
BU FANZA

EUPA
E LU RRA

ALEA
TXA NO A

POBIA
ON DO SA



Unibertsoa gure eskutan



Joan den urtarrilean, hilak 20, Haurtzaro Ikastolako LH 2. mailako ikasleek Unibertsoari buruzko aurkezpen batean parte hartu zuten. Gai hori ikasten ari direnez, egun horretan ikasleek Kristina fisikariaren bisita izan zuten ikastolan bertan. Unibertsoari buruzko argazki emanaldia ere ikusi ahal izan zuten.

Kristina Zuza Ibarra ikastolako andereñoa da, baita EHUn klaseak ematen ditu eta Arantzadi Zientzia Elkarteko Astronomia Saileko kidea gaur egun. "Aurora 2001" espedizioan parte hartu zuen, Kanadara joandako espedizio batean. Bertan hurbi-letik ikusi ahal izan zuen askok sekula ikusi ez edota telebistaz edo argazkien bitartez besterik ikusi ez dutena: aurora boreala. Gaueko argi berdeak dira, edota gorriak, edota arrosak edota moreak... Mugitu egiten diren argi batzuk, oso ikusgarriak.

Arestian aipatu bezala, 2001eko irailean Arantzadi elkarteko bost kide Kanadara joan ziren,

Yellowknife izeneko ipar-mendebaldeko eskimalen lurralde zabaletara. Horietako bat, Kristina Zuza izan zen, hain zuzen. Helburu nagusia dibulgazioa izanik, argazkiak ateratzera eta dena bideoan grabatzera joan ziren. Auroren fenomenoak ohikoa den tokietan unibertsitare garrantzitsu eta famatuak daude, baina Euskal Herrian ez da fenomeno ezaguna.

Kristinak lehen hezkuntzako bigarren mailako ikasleei aurkeztu zizkien "Eguzki sistema" eta sistema honetako bederatzi planeten ezaugarriak (banan bana). Azalpena egin ondoren, planeta hauei buruzko galderak egin zizkien haurrei, eta eztabaida batean murgildu zen haurrekin. Gure haurrak aldeztu aurretik gaia ikasten ari ziren; ezagun zuen gaiaren berri bazutela.

Kristina Zuzari txikitandik gustatu omen zaio izarrei begira egotea eta astrofisika ikasi nahi zuela esan zuenean amak esan omen zuen ez zitzaizela batere harritzen.



Kaixo denei:

Gu L H 3. mailako ikasleak gara.

Urtarrilaren 25ean Iñaki Martiarena (Mattin) marrazkilaria, bisitan etorri zitzaigun.

Etorri zenean bere burua aurkeztu zigun eta esan zigun 8 urte zituela hasi zela marrazten. Gero marrazki batzuk egin zituen. Marrazkiak polit-politak ziren eta oso dibertigarriak.




Ondoren galderak egin genizkion eta bukatzeko denon artean ipuin bat egin genuen. Ipuin horren izenburua "Mattin Oianlekun" zen.

Ipuinak honela zihoen:

Mattin Oianlekura joaten da eskiatzera eta zuhaitz baten kontra jotzen da eta ondoren ospitalera eramaten dute. Gero poz-pezik bukatzen du Mattinek.

Bukatu genuenean pasilloan jarri genuen.

Ikusi nahi baduzue bertara gerturatu, DBHko Informatika gela dagoen pasilloa da.



Ikusi arte.

LH 3. mailako ikasleak

Las vacaciones

*Me he aburrido de la ikastola:
en música notas do – mi – sol – la,
en el recreo me he sentido muy sola.*

*Ya he hecho las paces con mis amigos
y estamos un poco más unidos.
Me caen muy bien y creo que yo a ellos también.*

*Ya están llegando nuestras vacaciones
ya se han acabado las preocupaciones:
Llenar la mochila para ir a la playa,
sacar la sombrilla y el parasol.*

*Ya viene el verano y mucho calor.
Chicas en bikini y sujetador,
chicos, en cambio, en bañador.*

*Estoy olvidando cómo es el paraguas
y recordando cómo es la sombrilla
siempre cerca de mí, clavada en la orilla.*

*Sentirás que el calor viene
del Sahara a Oiartzun.*

*¡Mañana a la playa
con todos mis amigos!*

*Ya están llegando nuestras vacaciones
ya se han acabado las preocupaciones:
Llenar la mochila para ir a la playa,
sacar la sombrilla y el parasol.*

(Música de "Color esperanza")



Agua

Eres brillante y hermosa

¿Por qué eres hermosa?

Porque quiero ser la más grande

¿Por qué quieres ser la más grande?

Porque soy la madre y el padre de la vida

¿Por qué eres la madre y el padre de la vida?

Porque sin mí no hay vida.

Porque sin mí nada vive.

Porque sin mí nada vive.

Agua: una cosa maravillosa

Bueno, es un poquito peligrosa

Puesto que si hay mucha ella te ahoga

¡Pero es lo mismo si no hay ni gota! (Bis)

Música de "No es lo mismo"
de Alejandro Sanz

El mar

Hay buceadores en el mar
que no paran de estudiar
y mientras tanto los peces
se empiezan a pelear.

Una ostra en el coral
da regalos a la mar:
de un granito hace una perla colosal.


Ahora tengo un delfín
que me lleva por ahí
y he llegado al mar por fin.
Pero al final me caí
cuando estaba en Hawái
y llegué hasta una playa
donde lo pasé muy guay.

Había cogido una caña
para irme a pescar,
cogí las gafas y aletas
para irme a bucear


Olas que vienen y que van
todo un mundo "pa" jugar
No sólo agua es el mar.

Música de "Uno más uno son siete"
de Fran Perea

Inauteri



Inauteri



mozorro bat



bi aurpegi





Guraso eskola

Urteroko ohiturari jarraituz, martxan dugu aurtengo Haurtzaro Ikastolako GURASO ESKOLA. Eskola hau, orain arte bezala, ikastolako gurasoen topaleku izango da, bertara hurbiltzen direnek elkar ezagutzeko eta iritziak trukatzeko.

Gurasoen beharrak, interesak eta jakin-minak asetzera izango da eskola honen helburu nagusia. Momentuko zailtasun eta egoera zailak aurre egiteko ahaleginetan ere arituko da Guraso Eskola hau.

Topaketetan parte hartzen duten gurasoei beren beharrek bat datozen eduki teorikoak ere eskainiko zaizkie; sor daitezkeen arazoak aztertzeke analisi irizpideak ere bai. Era berean, esku-hartze estrategiak landuko dira eta familiako prebentzio eremua ere jorratuko da.

Lan metodologiari dagokionez, erabat parte-hartzailea izango da, eta dinamika aktiboak erabiliko dira.

DBHko Guraso Eskolak nerabezaroaren inguruko gaiak izango ditu hizpide eta aztergai. Hona aurtengo egitaraua:

1.- Gorputza eta nerabea. Hizlaria Margarita Gomendio izango da (IVEFeko irakaslea, psikologoa eta psikomotrizista).

2.- Drogak eta drogamenpekotasunak: Arauak eta mugak. Hizlaria, Txus Kongil (Askagintza herri erakundeko aditua).



3.- Nerabezaroa eta harremanak. Hizlaria, Idoia Agirre (Heldu, haur eta nerabeen psikiatra).

4.- Nerabeak eta teknologia berriak. Hizlaria adosteke dago.

Saioak gaztelaniaz eta euskaraz izango dira eta ordu eta erdiko iraupena izango dute.

Haur Hezkuntzakoekin ere martxan da aurtengo Guraso Eskola. Aurten ere elkarrekin pentsatzeko gunea eta espazioa izan nahiko lukete jarduerak. Gurasoen kezka, desio eta beharrei aurre egiteko, elkarrekin gogoeta eginez.

Topaketa hauen arduraduna Miren Garbizu izango da, Haurtzaro Ikastolako Psikologoa. Sei saio izango ditu aurtengo Guraso Eskola honek, hiru euskaraz eta beste hiru gaztelaniaz.

Aztergai nagusiak honoko hauek izango dira:

- Heziketa, haurraren izaera eta adimena prestatzen laguntzeko prozesua. Egungo gizartearen bizitzeko gai izan dadin lagunduko diona.
- Lehenengo heziketa, etxean. Honen garrantzia.
- Heziketa, haurtzaroaren eta heldutasunaren arteko diferentziari eustea.
- Hezteak, laguntzea, gidatzea eta bideratzea.

Haur Hezkuntzakoarekin amaitzean, Lehen hezkuntzakoari ekingo diote; jadanik prest daukate aurtengo programazioa. Beraz, aukera polita dute ikastolako gurasoek beren kezkak argitzeko eta arazoei, ahal den neurrian, aurrea hartzeko. Seme-alabak behar bezala hezteko, ongi datoz era honetako laguntza eta argibideak, eten gabea eta beharrezkoa baita gurasoen prestaera.

Hauek ditugu datak:

Martxoak 11 eta 18	//	15:00etatik 16:30era
Apirilak 6, 20 eta 22	//	15:00etatik 16:30era
Maiatzak 4, 13 eta 17	//	15:00etatik 16:30era



oarsoaldeko

hitza

Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2005-03-01 ▶ III. urtea ▶ 469. zenbakia




Oraindik ez duzula Oarsoaldeko Hitza etxean jasotzen?

Deitu berehala eta jaso
ezazu **DOAN**

943 30 43 46

astegunetan 8:30etik 20:30era
larunbatetan 9:00etatik 13:00etara



HITZA goizero etxean jaso, eta, zure
herrian eta eskualdean gertatzen direnak
bertatik bertara ikus eta irakur itzazu

ETA GAINERA... ▶

Bidaiazteko gogorik? Asteburu lasai bat pasatzeko gogorik?
Sabela bete nahi? Laster zure nahiak HITZA-k beteko ditu. **ADI EGON!**



Gazte foroa

Asteazkenero arratsaldeko 15:15ean, gazte foroa elkartzen da. Foro hau osatzen dute Haurtzaro eta Elizaldeko 12-16 urte arteko nerabeek eta udaletxeko ordezkari batek. Foro honen egitekoa da Oiartzungo nerabeak elkartu eta berek proposatutako ekintzak aurrera eramatea.

Gazteek proposatzen dituzte ekintzak eta udalak finantzatzen ditu. Udalak jartzen dien baldintza da hilabeteko ekintza desberdina izatea.


Lehen gazte topaketa otsailaren 26an izan zen eta bertan grafiti, malabare, talo, didjeridoo eta txalaparta tailerretan aritu ziren herriko gazteak, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Ondoren Landetxan afaria antolatua zuten, bakoitzak ekarritako jakiekin. Bukaera bezala Oiartzungo bi musika talderen kontzertua izan zuten.

Didjeridoo, grafiti eta talo tailerrak jendetsu egon omen ziren.

Hurrengo proiektuak hauek dira:

Gazte korrika. Nerabeek 12:00etatik 13:00etara parte hartuko dute korrikan

Martxoko ekintza Euskal Herriko herriren batean asteburua igarotzea da, bertan kirol bereziagoren bat egin ahal izateko.



Antzinako jolasen liburuxka

Haurtzaro ikastolako hiru gurasok antzinako jolasak berreskuratu nahi dituzte Oiartzungo haur guztientzat. Dagoeneko liburuxka osatua dute eta argitaratzeko udaletxearekin harremanetan ari dira. Beren asmoa eta nahia da Oiartzungo haur guztiek liburuxka jasotzea.

Korrika ospatzen den goizean eta hizkuntza eskubideen egunean, liburuxkan bildu dituzten jolasetan aritzeko aukera izango da.

Anima zaitezte, ziur pasadizo bat baino gehiago etorriko zaizuela burura!



Txingudiko Txikiguayera txangoa

2 urteko geletakoek autobusez egin dugun lehen-dabiziko irteera Txikiguayekoa izan da. 4 gelak elkarrekin joan gara eta haurrak oso txintxo ibili direla esan beharra dago.

Aurreko egunetan egun hau iristeko gogoia eta emozioa nabaritzen zen:

- > "Egun bat lo eta Txikiguayera", esaten zuen Gexanek;
- > "Geldi-geldi joan behar dugu autobusean, bestela eroriko gara", Paulok berriz; "Ama, zuk ezin duzu, Iraia eta gu bakarrik", esaten zion Maddik bere amari; "Autobusean txintxo joan behar dugu eserita", zioen Unaik "Idoia, nor-bait altxatzen bada nik esango dizut";
- > "Takolo jarriko dute autobusean", Anek...



Autobusa abiatu denean Takolo, Pirritx eta Porrotxen bideoa jarri digute eta hari begira joan gara, baina baita leihotik ikusten genuena kontatuz ere: Mikelek bere etxea non zegoen erakutsi digu, Gexanek mendietako elurra, eskabadorak eta kamioiak lanean... Berehala iritsi gara.

Autobusetik jaitsi eta zuzenean Txikiguayera; oinetakoak eta berokiak kendu eta jostatzera!!

Hasieran 3 urte artekoentzako prestatutako jolaslekura joan dira haur gehienak, pilotaz betetako txokora beren burua botaz, saltoka ibiliz, txirristatik jaitsiz, irristatuz..., baina berehala 4 urtetik 12ra prestatutako egituraren sartzen joan dira, beren trebetasunak neurtuz... ranpatik igo ezinik, irristatuz baina aurrera; txirrista handitik jaisteko beldurrez, baina aurreraka edo atzeraka jaitsiz, batzuk gure laguntzarekin eta ausartenak bakarrik; txoko beldurgarrian zeuden gortinak zabaldu bai, baina aurrera joateko ausardia ezin aurkiturik; batzuk eskua emanda ausartu dira, urduritasun eta emozio handia bizi izan dute eta ondoren errepikatu dute... Beste batzuk ausartegiak izaki eta egituraren goiko muturreraino igo bai, baina jaisteko bidea ezin aurkituz edo altuerak beldurturik garrasika irakaslearen laguntza eskatu dute.

Dena dela, merezi izan du!

Izan da haurrik alde egiteko garaia iritsi denean jolasean jarraitu nahi zuenik... Bitartean berokiak eta oinetakoak jantzi ditugu, ura edan eta autobusera berriz.



Gure irteeretan gurasoen laguntza izaten dugu beti; gaur, ordea, ibilaldia erraza zenez, horrelako premiarik ez dugu eduki eta irakasleok bakarrik joan gara berrogeita hamabi haurrekin (hiru falta ziren). Azpimarratzekoa da bertako monitorearen laguntzeko jarrera: haurrekin oso goxo eta denbora gutxian erne gertatzen zenari adi.

Itzultzeko bidean, eguzki goxoaren izpiak lo egitera gonbidatu gaituzte eta, nahiz eta Takolo Pirritx eta Porrotxen bideoa jarrita egon, zenbait haur lo etorri dira.

Hurrengoan berriz!!

2 urteko geletako irakasleak



Kaixo eta agur

Egunsentia dator
izurdea bailitzan
jauzika itsaso ederrean,
loreak berpizten dira
eguzkiaren izpiekin,
zuhaitzak argitzen dira
egun berriarekin
eta ni hemen,
bakarrik eta inor gabe
lurrean, nire lagun bakarrarekin.

Gauero-gauero gaude elkarrekin
eta balantzaka ibiltzen naiz
eskuan botilarekin.

Oi bizitza ! Oi bizitza !
Zergatik ni ? Zergatik ni ?
Zer erru dut nik
kale bazterrean
egoteko bakarrik ?

Ez dut dirurik,
ez etxerik,
ez lagunik,
ez lagunduko nauenik ere
eta bakarrik nabil,
botilarekin.


Bakarrik hazi naiz,
bakarrik hezi naiz,
bakarrik ibiltzen naiz,
bakarrik nago.
Zergatik nago bakarrik ?
Zer erru dut nik ?
Zergatik bakarrik ?
Zein bizitza gogorra !
Zein jokaera gogorra !
Inork ez al du sentimendurik ?

Egunero eskean nabil,
ez baitut lanik,
ez eskainiko didanik ere.

Hau bizitza !
Zer egin ?
Zer jan ?
Nora joan ?
Han zer ?
Nazkatuta nago egoteaz bakarrik,
lagun bat izango banu sikiera !
Zer egin dezaket ?
Nork lagunduko dit ?
Nola lagunduko dit ?

Gauak ekarri zuen festa
festak ekarri zuen alkohola
alkoholak ekarri zuen pobrezia
pobrezia ekarri zuen bakardadea
bakardadeak ekarri zuen lanik eza
lanik ezak ez zidan dirurik eman
eta gelditu nintzen lurrean
honela agurtzen naiz, banoa, kaixo eta agur.

DBH 3. mailako Asier Retegi





Garikoitz San Jose

Aurreko ikasturtean Garikoitz San Jose izan genuen gure artean. Ikasle ohia dugun hau, gure ikasle batzuekin lanean aritu zen. Rafael Vega, Nabil Salma, Jhonatan Burga eta Fernando Martinez ikasleek elkarrizketa bat prestatu zuten Garikoitz berri izan dezagun denok. Beraz, goazen Garikoitz pixka bat gehiago ezagutzera.

Gurekin gustura egon al zinen?

Bai, noski, zuekin oso gustura egon nintzen eta, zuek nirekin?

Bai. Esperientzia polita izan al zen?

Bai zuekin egotea oso esperientzia polita izan zen, asko ikasi nuen zuetaz.

Jarraitzen al duzu horrelako lanak egiten?

Ez, astean bitan zuekin euskaraz aritzeko aukera eskaini zidaten, boluntario bezala eta onartzea erabaki nuen, probatzeko. Nik ez dut irakasle eskolan ikasi eta ez naiz irakaslea, baina oso gustura etortzen nintzen astean bitan, eta horrela gainera, banuen esnatzeko aitzakia bat.

Lanik egiten al duzu?

Gaur egun lanik egiten dudan? Beno nik Hernanin egiten nuen lan, Orona izeneko igogailu enpresa batean, lanpostu polita neukan, pozik nengoen. Baina istripua eduki nuen eta aulkian egon nintzen 2 urte eta 2 hilabete. Gero bi muletekin ibiltzen nintzen eta orain, berriz, muleta batekin. Berez pentsionista naiz, eta zer egingo dudan? Hori da nire oraingo galdera, bidaiatu, familia eduki... ez dakit bizitzak bira ugari ematen ditu, hori behintzat irakatsi dit istripu honek.

Niretzat gaur egun bizitzea lan bat da. Etxe batean bakarrik bizi naiz, eta hori niretzat lana da. Aurrera egitea, etxeko lanak egitea, etab. Eguneroko bizitza egitea, egunero hobetoxeago egotea da nire lana.



Nola gertatu zen istripua?

Hegaldi batean, parapentean. Goiz batean lanetik atera, bazkaldu eta eguraldi ona zegoenez, hegan egiteko gogo piztu zitzaidan. Ez dakit zer gertatu zitzaidan, baina hura edo ni hankaz gora jarri zen, eta beherantz egin zuen; horrela eduki nuen zorigaitza, istripua.

Nork lagundu dizu aurrera egiten istripuaren ondoren?

Bizitzak, jendeak, lagunak...

Zer egin behar izan duzu sendatzeko?

Sendatzeko? Nik eduki nuen lesioa bizkarrezurrekoa izan zen, lesio hori neurologikoa denez, medikuek ere ez dakite nola geratuko den, orduan pazientzia eduki behar da eta errehabilitazioa egin.

Errehabilitazio asko egiten al duzu oraindik?

Jendeak beti galdetzen dit: errehabilitazioa gogorra ezta? Baina, egia esan, gogorra baino gehiago egunerokoa da; hau da, egunero egiten bada pixka bat beti lortuko da zerbait handia. Eta ni nahiko pozik nago neure buruarekin, hemen baikaude, eta eguneroko lan hori eginez.

Gehiago egin beharko nuke egunero hobeto egoteko? Hori da betiko galdera. Ez dakit, jendearekin egotea, tabernetan egotea, bizitza soziala egitea ere errehabilitazioa da. Azken finean, errehabilitazioa ongi egotea da eta bi gauzak parekatu egin behar dira, bai gimnasioa eta baita bizitza soziala ere.



Gimnasioan egunean ordu ugari sartzeagatik ez dut uste hurrengo egunean hobeto egongo naizenik. Nork bere burua mantendu egin behar du, beti ere, obsesionatu gabe. Hori bai, egunero igerilekura joan beharra daukat bizkarrezurra indartsu egoteko, baina gainerakoan, egunero pixka bat eginez gero, beti etortzen dira emaitza onak.

Beldurra ematen al dizu berriro parapente egiteak?

Beldurra, ez dakit, ez dut hegan egin berriro, hegazkinean ibili naizen arren. Hala ere, beldurra baino gehiago errespetua ematen didala esango nuke. Nik istripua eduki nuenean, 23 urte nituen eta denok dakigu gaztea zarenean arriskuak ez dituzula ongi neurtzen. Baina istripua gertatu ondoren, badakizu zer den bizitzan gaizki pasatzea, orduan gehiago baloratzen da ongi zaudenean gozatzen.

Istripuaren ondoren zer ezin duzu egin?

Badaude mugak, korri egitea edo mendira joatea adibidez, alde horretatik asko mugatu zait bizitza. Lehen mendian asko ibiltzen nintzen eta eskalatzen baita ere; lagunak ere bizitza horren inguruan nituen, eta istripuaren ostean mendizaletasuna utzi behar izan dut, eta horrek asko mindu nau; baina era berean, beste ate batzuk zabaltzen dira eta eskura dituzun gauza horiek eginez gehiago gozatzen da.

Adibidez?

Piragismoan asko ibiltzen naiz, eta txirringan, garai batean ez nuen hartzen, eta gaur egun asko ibiltzen

naiz. Adibidez urrian, 900km egin nituen txirringan Cisterraraino joanez, eta orain, Europatik zeharkaldi bat egiteko asmoa daukat. Fisikoki dituzun aukerak baloratu eta gozatu egiten dituzu.

Nirekin kirolzaleak ez ziren pertsona ugari egon ziren ingresaturik eta gaur egun, gero eta kirolzaleagoak dira, badakit, esaterako, asko direla eskiatzera joaten direnak eta lehen ez zuten inoiz eskiatzen. Bai beste ate batzuk irekitzen zaizkizu.

Lehen egiten zenituen kirolak baztertu al dituzu?

Ez dakit baztertu egin behar ditudan. Noizbait berriz ere helduko diodan esperantzari heltzen diot beti. Hala ere, harro nago, istripua izan arte gaztaroa mendiaren inguruan egin nuen, eta mendi asko igo nituen. Orain bizikletarekin eta piraguarekin pentsatu nahi dut ase nagoela.

Ikastolan ikasle ona al zinen?

Nik esango nuke baietz, baina hori bertakoei galde-tu, ez dut uste gauza bera esango dutenik.

Ba al duzu neskagunik?


Neskak eta lagunak direnak asko ditut.

Mila esker Garikoitz zure denbora eta bizitzako zati bat gurekin erdibanatu duzulako.

**Egileak: Jhonatan Burga,
Nabil Salma eta Rafael Vega**



Eskalada hastapen jarduerak Haurtzaro ikastolan



Herri mendizalea dugu Euskal Herria. Non-nahi dugu mendia eta bertara joaterakoan gure mendizaletasuna agerian geratzen da. Eta ikastolaren helburuetan, besteen artean, natura, kirola, autobabesa..., hau guztia bultzatzeko, gorputz hezkuntzaren arlotik mendi irteerak, koba zuloei bisita, ibaien jaitsierak, etab. egiten ditugu.

Oraingoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duen eskolako kirol programaren barruan kokatu behar dugu ekintza berri hau, eskalada. Kirol hastapenetako irizpidez eginak daude ikastaro hauek eta lehiaketa alde batera utziaz, erabilgarritasuna, jolasa, segurtasuna ditu jo muga.

Hastapeneko jarduerak arriskua duten edo eskolan gutxi landu daitezkeen kirolak bultzatzeko dira. Oihartzunen, Elorsoro kiroldegiak eskaintzen digun aukera paregabea aprobetxatuz, DBHko 3. mailako ikasleek gozatu dute eskalatuz. Segurtasuna eta osasuna ziurtatzea da beste helburuetako bat.

Ekintza egitera bultzatu eta eskatuko dugu, edozein delarik, behar diren babes neurriak hartu ondoren.

Hau guztia aurrera eramateko, eta beste urteetan bezala, Jose M^a Arbelaiz "Baserri" eta Igor Lasaren gidaritza izan dugu. Bi monitore hauen eskutik segurtasun osoz eta aisiarako aukera bezala eskaladaz gozatu dugu:



- Material teknikoa ezagutu dugu: arnesa, mosketoak, sokak eta abar.
- Oinarrizko korapiloak egiten ikasi: sokaz lotu eta aseguruak jarri.
- Eskalatzen hasteko lehen urratsak egin.
- Polean eskalatu, lagunak aseguratzuz.

Oihartzunen eskalatzeak aukera ugari ditugu. Eskalada sustatzeko urrats hauek ez bide dira berehalakoan bukatuko.





GURUTZEGRAMA HAUEK OSATZEKO ONDORENGO IZENAK BEREN LAUKITXOETAN IDATZI
ETA LAUKI BELTZ LODIAN BESTE IZEN BAT AGERTUKO DA.


ANTXOA
SARDINA
IZURDEA
MARRAZOA
HEGALUZZEA
BAKAILOA
OLAGARROA




XABIER
NEKANE
MIKEL
AINHOA
MIREN
IÑAKI



KRABELINA
KAMELIA
ZITORIA
KRISANTEMOA
BITXILOREA
GERANIOA



KARIBE
HILA
MEDITERRANEOA
BALTIKOA
AUSTRALA
GORRIA
BAREA





ARGIBIDE HAUEI JARRAITUZ
ANIMALIA BATEN IZENA OSATUKO DUZUE:



LEHENENGO LETRA TXAHAL
ETA TIGRE HITZETAN DAGO,
BAINA EZ DAGO ERBI ETA
SAGU HITZETAN.

BIGARREN LETRA TXAKUR ETA
UNTXI HITZETAN DAGO,
BAINA EZ DAGO TIGRE ETA
KATAGORRI HITZETAN.




HIRUGARREN LETRA IDI ETA
JIRAFa HITZETAN DAGO,
BAINA EZ DAGO SUGE ETA
BARE HITZETAN.

LAUGARREN LETRA ARRATOI
ETA OSTRUKA HITZETAN
DAGO, BAINA EZ DAGO BELE
ETA ZIKOINA HITZETAN.



BOSGARREN LETRA OTSO
ETA OREIN HITZETAN DAGO,
BAINA EZ DAGO ARMIARMA
ETA TRIKU HITZETAN.

SEIGARREN LETRA ARDI ETA
AHARDI HITZETAN DAGO,
BAINA EZ DAGO OILO ETA
BEHOR HITZETAN.



LORONTZI HAUEN ARTEAN
BI BAKARRIK DIRA BERDINAK.



RISKYREN BIHURRIKERIAK

Idazlea: Joxemari Iturrialde

Argitaletxea: Elkarlanean

• Laburpena •

Liburu honetan Riskyren eta bere lagunen bihurrikeriak azaltzen dira. Hona hemen bihurrikeri bat:



Goxan eta Lorenzo Joseren artean apostua egin zuten nork egingo bihurrikeri gehien. Patxik, mutil batek kontatu zigun bat arratsean zer gertatu zen. Bi mutil, nesken logelan sartu omen ziren komuneko baldeka ur batekin. Zer gertatu ote zen neskak esnatzerakoan?

NIRE IRITZIA

Liburu polita eta entretenigarria da, eta bihurrikeriak egitea gustatzen bazaizu hauetako bat irakurri eta egitea duzu onena.

Irakurri! merezi du eta!!!


Kakoeta

Zuberoako zonalderik ezagunena da. Uhaitza ibaiak zeharkatzen ditu kakoetako arroilak. Milaka eta milaka bisitari izan ditu urtetan zehar Kakoetako mendi zintzurak edo arroilak. Bertan mendi arteko naturaren bihurrikeriak ikus daitezke: estuguneak, ur jauziak eta putzuak. . . 350 metroko altuera dute gehienez amildegi hauek eta, leku batzutan, elkarrengandik hiru metrora daude bi horma, parez pare.

Arroilak jendeak bisita ditzan prestaturik daude eta, hala, bidezidorrak, heldulekuak eta zubiak, besteak beste, aurki daitezke bertan bisitariari laguntzeko. Hauetan barrena murgiltzeko inguruetan zerbitzu ugari ezarri dira azken urteotan. Esate baterako, segurtasun neurriak eskaintzen dituzte, kaskoak kasu.

Santa Grazi inguruetan dagoen herrietako bat da eta bertatik ailegatu daiteke Kakoetara. Ikusgarriak dira, esaterako, herri honetako eliza eta hilerria.

Santa Graziko eliza erromanikoa ikusatzeari ezinbestekoa da. Leireko Monastegiaren aginduz eraiki zen 1085. urtean.



Kokapena: Santa Grazi, Zuberoan, Larrañe eta Atarratze lotzen dituen errepidean.

Nola iritsi: A8 tik Frantzian sartu arte. Hemen A63 hartu 3. irteera arte. Briscousen D21 hartu Hasparren arte eta ondoren Mauleonerako bidea hartu eta hemendik Tardets-Sorholusera. Azken portua Sainte-Engrace izango dugu.

Gune interesgarriak: Kakoetako mendi zintzurra bera ikusgarria da, 250 metrotarainoko hormekin eta 3 metro zabalerako estugunetan. Elhujarre, Urdabi, Uhaitza edota Holtzarteko mendi zintzurak ere ikustekoak dira.



Bien artean
egingo dugu

Zer sortuko
ote dut
hemendik?



Elorrondo, z/g
Tel. 943 491 659 - luzapena 111
20180 OIARTZUN
e-posta: oiartzun@ikastola.net

**Aurrematrikula
epea
irekita dago**

Bulego Ordutegia:

8:00 - 18:00

Ordutegi honetaz kanpo, telefonoz deitu aldez aurre

DENON ESKURA

Zatoz!

Zatoz!

Laguna Zaitugu



Haurtzaro Ikastola

DENON ESKURA



Matrikulazio epea zabalik

Otsailaren 18tik 28ra bitarte

Bulego ordutegia: 8:00 - 18:00

Telefona: 943 491 659-luzapena 111

Elorrondo, z/g - 20180 OIARTZUN

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiertzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3º dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



Biok ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN KM. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA



TAJO

Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Poligono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250

Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



A M E N A B A R

AENOR



Empresa
Registrada
ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN MERKATARITZA ZENTRUA